



## BIZKAIKO ELIKAGAIEN BANKUA

Gizarte saila

### ERAKUNDE HARTZAILEAK HARTU BEHARREKO KONPROMEZUAK

---

#### Elikagaien banaketaren baldintzak.

- 1) Elikagaien beharra ziurtatu duten pertsoneri bakarrik banaketa egitea, Bizkaiko Elikagaien Bankuak (BEB) adierazitako eta onartutako irizpideen arabera.
- 2) Erakunde Hartzailearen esku-hartze esparrura mugatuko da banaketa: herrira, auzora, berariazko taldeetara, etab.
- 3) Banaketa doakoa izatea, ordainik gabe, bidezkoa, diskriminazio barik.
- 4) Onuradunei adeitasunez zuzendu.
- 5) Elikagaiak ezingo dira inolaz ere birsaldu edo finkatu diren helburuetatik at erabili.
- 6) Erakunde Hartzaileak (EH) ezingo du Bizkaiko Elikagaien Bankuko izena edo irudia erabili diru ekarpenak zein elikagaiak biltzeko, ezta bere zerbitzuak iragartzeko ere.

#### Elikagaien harrera.

Erakunde Hartzaileek elikagaien motaren arabera eta BEB-aren biltegian izakinak egotekotan jasoko dituzte elikagaiak, onuradun taldearen ezaugarriak/kopurua eta Erakundearen lan esparrua kontuan hartuz.

Erakundeak adierazitako egunean elikagaiak BEB-aren biltegietatik edo jasotze-gunetik aterako ditu bere baliabideak erabiliz. Dena jasotzerakoan emate-agiria sinatu beharko du.

Erakunde Hartzaileek jasotako elikagaien inguruan ezingo dute kexarik, eskaera berezirik edo arrazoirik gabe jasotakoari uko egin. Hala eta guztiz ere, onuradunen beharretara egokitzeko moduak bilatu beharko dira.



## BIZKAIKO ELIKAGAIEN BANKUA

Gizarte saila

### Elikagaien manipulazioa eta biltegitratzea.

Elikagaien inguruan dauden segurtasun arauak jarraituz egingo da manipulazio, biltegitratze eta emate prozesu guztia, hotz-katea eta iraungite data kontuan hartuz.

Biltegitik kopuru zehatza eta egokia atera beharko da, denbora-tarteak kontuan hartuz. Hartutako eta banatutako elikagaien erregistroa eramatea beharrezkoa da, eta onuradunek eskaera jasotzerakoan ordaingarria sinatu beharko dute jasotakoaren izena, mota, kopurua eta data zehaztuz.

### Kontrola, komunikazio-bideak eta hobekuntza.

BEB-aren bisita taldeko boluntarioek Erakunde Hartzaileei arreta eskainiko diete datuak eguneratzeko, harrera baldintzak berrizatzeko eta egoeraren gorabeherak elkarbanatzeko. Bilerak aldizkakoak izan daitezke (bi urtetik behin gehienez), Erakundeak eskatuta edo BEB-ak aintzat ematen badu. Elikagaiak atera daitezke bileran.

Bisita egiterakoan, Erakundeak eguneratutako datu guztiak adieraziko dira, onuradunen zerrenda barne (GUF aplikazioaren bidez). Erakundeek aplikazio honen bitartez Gizarte Sailari helaraziko diote onuradunen datuak, Kontsumo Erakundeak izan ezik, emateak egokitzearen.

Komunikazioa erraztearen, Erakunde Hartzaileak bitartekoen telefono edo helbide aldaketen berri eman beharko du.

BEB-ak, Erakunde Hartzaileekin lankidetzan hobetzeko, hauen iradokizunak eta erreklamazioak ahalik eta azkarren erantzuteko konpromezua hartuko du.